

ELGERA



JUNE MENDIZABAL GUERRERO

“Ameriketan profesionalki
jokatzea gustatuko litzaidake”





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza
- 8 Erreportajea
- 10 Jarduerak
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak

aurkibidea

ELGERA 5. Zb. MARTXOA 2014

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.
Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 5.000. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Ibarrekolanda BHI - Alazne Astorga, Adriana Coira eta Ainara Legorburu

HARRAPAZANK 2014

euskaraz bizitzea

Ibarrekolanda Institutuko ikasle multzo bat gara. Harrapazank programa ezagutu genuen institutuaren bitartez orain dela 4 urte, DBHko 1. mailan. Hitzaldi bat ematera etorri ziren, eta interesgarria iruditu zitzaigun. Bi dantza talde egin genituen, eta hiru urte hauetan oso gustura egon gara ekintza honetan parte hartzen.

Lehenengo urtean nahiko urduri geunden, ea nola izango zen guztia jakiteko, zelako laguntza izango genuen lana egiteko etab. Egia esan, primeran pasatu genuen eta asko lagundu ziguten antolatzaileek. Ez genuen saria irabazi, baina esperientziarekin geratzen gara eta hori ezin digu inork kendu.

Hurrengo urteak gero eta hobeak izan dira, jendea ezagutu dugu, gero eta gehiago ikasi dugu dantzaren inguruan, etab.

Baina gehien bultzatu gintuen Harrapazank ekintza honetan parte hartzeko, euskara sustatu eta gehiago erabiltzeko ekintza bat zela izan zen.



“Ameriketan profesionalki jokatzea gustatuko litzaidake”

Botikazar BHI - Markel Baroja Laita

June Mendizabal Guerrero, 17 urteko Botikazarreko ikaslea eta Athletic Clubeko jokalaria deustuarra, txikitatik izan duen ametsa betetzear dago: lehen mailako jokalaria izatea. Hala ere, ikasketak ez ditu sekula alboratu.



Noiz hartu zenuen futbolean jokoatzeko erabakia? Norbaitek lagundu zizun?

Txikitan hasi nintzen futbolean jolasten. Ibiltzen hasi eta bezain laster nire nebarekin batera ekin nion jolasteari, eta azkenean zaletasun handia hartu nuen. Gainera, oso gustura ibiltzen nintzen ikastolako patioetan egunero partiduak jolasten.

Zein ibilbide izan duzu Athletic Clubera iritsi aurretik?

Deustuko Ikastolan hasi nintzen betiko lagunekin batera eta gero SD Deustora joan nintzen nesken taldera. Bertan lau urtez egon eta gero, Bizkerre FTra alde egin nuen. Han nengoelarik, Lezamara entrenatzera joateko esan zidaten eta orduan hasi nintzen Lezaman, Bizkerre taldeko jokalaria nintzen bitartean. Handik bi urtera Espainiako bigarren mailan dagoen San Ignacio taldean sartu nintzen 15 urte nituelarik eta urtebete ondoren Athleticera pasatu nintzen.

Athleticek nolabaiteko laguntza eskaintzen dizu ikasketetan?

Bai, nahi izanez gero aukera daukagu Lezaman dauden gela batzuetan laguntzaile batekin ikasteko, baina denbora faltan, zaila egiten zait bertara joatea. Entrenatzeak denbora



larregi kentzen digu eta horregatik oso zaila da ikasketak modu egokian antolatzea. Gainera, sarritan ematen dira ordutegi aldaketak eta aldeztatik prestatzea ekiditzen du horrek.

Ikasketak eta futbola partekatzeke intenziorik duzu unibertsitatean?

Bai, gustatuko litzaidake bizitza osoan kirola lantzen ibiltzea eta horregatik hurrengo urtean JFKZ / IVEF ikasketak egiteko asmoa daukat.

Etorkizuna ikusten duzu futbolean? Lehen taldera igotzeko aukerarik al duzu?

Lehen taldera igotzea asko gustatuko litzaidake, baina hori oso zaila da. Alde handia dago lehenengo eta bigarren taldearen artean, nahiz eta egunez egun distantziak murriztuz joan. Ameriketara profesionalki jokatzera joatea gustatuko litzaidake, baina Athleticen ibilbidea bukatzea izango zen politena.

Euskal Selektzioko kapitaina zarela bada-kigu, baina zer suposatzen du horrek?

Kapitaina aukeratua izana benetan hunkigarria da, eta Euskal Herritik kanpo ikurrinaren pisua besoan eramatea sentsazio ikaragarria. Oso pozik nago.




EDITA

Inauteriak beti ospatzen ditut lagunen artean. Aurten institutuan festa egingo dugu ospatzeko eta larunbatean Bilboko Alde Zaharrera joango naiz lagunekin, han Bilboko gazte guztiok elkartzen gara denon artean ondo pasatzeko.

UNAI

Nik, bi astetan ospatzen ditut aratusteak. Lehenengo nire auzoko aratusteak ospatzen ditut, konpartekin mozorrotu eta gero lehiaketa batean hartzen dugu parte. Hurrengo astean Bilboko aratusteak ospatzen ditut.



ANE

Inauteriak nire iritziz urteko jai politenetakoak dira. Agian, politik baino gehiago, dibertigarriak. Kalera irten eta jendea pozik nabaritzen da; pozik, alai eta irribarretsu. Niretzako oso aproposak dira, izan ere, kalera mozorrotuta ateratzea izugarri gustatzen zait. Gainera egun horretan inork ezin zaitu txarto begiratu.



JUDITH

Inauteriak lagunekin eta familiarekin batera ospatzea gustatzen zait, gainera mozorrotzea oso dibertigarria iruditzen zait. Aurten, gure institutuan festa bat prestatu dugu, mozorrotuta joango gara eta elkarrekin oso ondo pasatuko dugu.



ITXASO

Aurten inauterietan, nire lagunekin egongo naiz, beti bezala guztiak berdin mozorrotzen gara elkarrekin jaiak ospatzeko. Asko gustatzen zait egun hau, beti ondo ateratzen delako eta denak konforme amaitzen dugulako eguna. Zenbat eta barregarriago joan, hobeto pasatzen dugu, garrantzitsuena ondo pasatzea delako.



AINHOA

Inauterien helburu nagusia, mozorrotuta egotea da noski! Horregatik, trogloditaz joatea erabaki dut. Mozorroa eskuz eginda dago eta gehigarri batzuk ipini dizkiot sinesgarritasuna emateko. Inauteriak nire lagunekin auzoan ospatzen ditut eta gero Bilbotik parrandan joaten naiz.



Gaizka Garitano geurean

Gaizka Garitano San Adrian Institutura etorri zen urriaren 24an eta 3. mailako ikasleekin berbetan aritu zen. Bere bizitzari buruz jardun zuen, jokalariei egiten dizkieten probei buruz baita hartu behar duten janariei buruz ere.

Garitano 1975eko urtarrilaren 9an jaiotako futbolari bizkaitarra dugu. Sei taldetan jokatu du: Athletic (1993-1996, 1997-1998), Eibar (1998-1999, 2001-2005), Unió Esportiva Lleida (1996-1997), CD Ourense (1999-2001), Real Sociedad (2005-2008) eta Alavesen 2008an. Egun, Sociedad Deportiva Eibarreko entrenatzailea da.

Gai interesgarri asko aurkeztu zituzkigun Gaizkak, honakoak, hain zuzen ere:

Futbolariak jaten zutenari buruz hitz egin zigun. Dirudienez, kirolariak karbohidratoak eta fruitu asko jan behar dituzte. Ezin dute gozokirik jan, ezta erre ere, eta alkohola edatea erabat debekatzen zaie.

Futbolarien soldata

Diruari buruz ere aritu zitzaigun. Esaterako, konparatzen baditugu futbolari batek askoz gehiago irabazten du suhiltzaile batek baino. Izan ere, suhiltzaile batek urtebete behar du futbolari batek hilabe-

te batean irabazten duena lortzeko. Geure iritziz, ez da bidezkoa. Suhiltzaileek bizitzak salbatzen dituzte; futbolariak, aldiz, partidak jokatu baino ez dute egiten.

Dopinaren gaia ere ukitu genuen. Dopina kirolari batek bere organismoak ez dituen substantziak hartzeari deritzo, edo legezko diren substantziak normala ez den moduan hartzea, lehiaketetan errendimendu fisikoa handitzearen.



Neskak ere futbolean aritzen dira. Telebistan ez da asko ikusten arrakasta handia ez duelakoan edo... Baina horrek ez du inola ere esan nahi txarto jokatzeko dutenik; aitzitik, liga asko irabazi dituzte.

Hitzaldia oso interesgarria izan zen: futbolaz gain, beste gai interesgarri asko aipatu zituelako.

Benetan merezi izan du ikastetxera ekartzea. Beraz, aukera izatekotan, zalantzarik ez izan, datorren ikasturteko IKAS2DEak deialdian, egin hizlari honen eskaera.

Ondoan duzue IKAS2DEak programaren linka: ikas2deak.info



WOP proiektua eta Salesianos Deusto



Gaur egun, WOP proiektuaren helburua horixe da: ahalmen horiek berreskuratzeko terapiaren bat aurkitzea horrelako gaixotasunak dauzkaten pertsona guztientzat. Horrexegatik sortu zuten Walk On Project bere gurasoek. Hasieran, fundazio txikia izan zen baina gaur egun, izugarrikoa. Jonen aitak dioen bezala “egun hartan diagnostiko izugarri hura entzun genuenean, medikuek ez zuten erreparatu Jontxu bilbotarra zenik”.

Jonek gurekin ikasten du Salesianos Deuston eta egunero izaten gara berarekin. Horrexegatik, guretzat proiektu berezia da. Hona hemen, planteatutako galdera-erantzunak:

Jontxurengandik gehien gustatzen zaiguna

Bere irribarrea da, zalantzarik gabe. Pozez irri egiten duenean denok kutsatzen gaitu eta guk ere barre egiten dugu. Uste dugu Jon-

txuk badakiela disfrutatzen gauza txikiez eta berarengandik ikasi behar dugula.

Eta gutxien

Gutxien gustatzen zaiguna mielina ez izatea da. Burmuineko likido hori ez izatea ez dio uzten gurekin hitz egitea edota ibiltzea. Bartzuetan ez diogu ulertzen eta horrek amorrur ematen digu.

Gure itxaropenak Jontxuren etorkizunerako

Hauexek dira: Jon sendatzea, gurpil aulkian ez egotea, betiko mutila berriro izatea, ibiltzea, hitz egitea... dira. Badakigu diru asko balio duela. Horretan gaude eta Jontxuk lortuko du!

Guretzat, Jontxu 5. mailako gelan egotea

Hasieran, lehen aldiz ikusi genuenean, beldur pixka bat genuen ez genekielako zer

Dena hasi zen gure Jontxuri, sei urterekin, neurona-sistemaren endekapenezko ezohizko gaixotasun bat sumatu ziotenean. Hemendik aurrera, Jontxuren ingurua mugitzen hasi zen eta gaixotasuna geldiaraztea lortu zuten bere arrebaren muinaren transplanteari esker. Halere, Jontxuk hainbat ahalmen galdu zituen.

egin, nola komunikatu berarekin... Orain, oso pozik gaude. Beste ikaskide bat da guretzat. Asko gustatzen zaigu berari laguntzea eta, horrekin ikasten ditugun gauza guztiak. Badakigu zorte handia eduki dugula Jontxu gurekin izatearekin! Alboko gelakoak jelskor daude! (kar, kar, kar).

Jontxurentzat, gure gelan egotea

Gure ustez, Jon gurekin oso pozik dago. Berak ikasgai ezberdinak ditu egun osoan: Fisioterapia saioak, Zentzuen entrenamendua, Logopedia... baina Musika, Tutoretza, Arte eta Heziketa Fisikoan gure gelara etortzen da eta uste dugu gehien gustatzen zaizkion saioak direla. Pentsatzen dugu gurekin egoten denean zorionsua dela bere lagunekin dagoelako eta guk asko maite dugulako.

Zera aldatu da

Irakasleei esker, ikasi dugu nola agurtu eta hitz egin behar diogun berak guri ulertzeko. Berarekin jolasten dugu eta ez digu beldurrik ematen ezagutzen dugulako. Patioan, adibidez, agurtzen dugunean, berak beti irribarra botatzen digu. Hainbeste gustatzen zaigunez Jontxu horrela ikustea, berarekin egoten gara. Asko maite dugu.

Gure pentsamendua eta jarrera aldatu dira

Jontxu gure kurtsoan egoteak beste pertsona ezberdinekin erlazionatzeko aukera eman digu. Bide batez, beharizan bereziak dituzten pertsonen buruzko ikuspuntua aldatu da guretzat. Beste gauza batzuk sentitu ditugu eta asko gustatu zaigu. Zoragarria iruditu zaigu. Eskerrik asko Jon!



Bidaiatu, ikusi eta ikasi

Miguel de Unamuno Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleek bidaiatzeko aukera dute eta bide batez ikasitako hizkuntzak erabiltzeko.



Atenas-Erroma

Greco eta Latina ikasgaietako ikasle eta irakasleok, urtero bezala, otsailaren 21etik 25era Erromara bidaiakulturala egin dugu, Pompeia ere bisitatuz. Iaz Atenas eta Delfos ere bisitatu genituen. Oso oroimen onak gordetzen ditugu bidaiakulturalak.



Paris

Frantsesa ikasgaietako ikasle eta irakasleok, urtero bezala, martxoan Parisera leku aldaketa egin dugu, hango familien bizimodua ezagutzeko gain, Pariseko museoak eta leku ikusgarriak bisitatu ditugu. Gure kultura ezagutzeko aukera emango diegu hango ikasleei Bilbora datozenean martxoaren 28tik apirilaren 24ra.

Eskurtze BHI




Sara Amo

HARRESI HANDIRANTZ

Idazlea: Jon Arretxe**Argitaletxea:** Alfaguara Zubia**Urtea:** 2008

Nire ustez, liburu hau egokia da gure adinerako. Liburua ez zait asko gustatu, baina egokia da irakaspén moral handia duelako. Rama, protagonista, bere bidaian zehar pertsona batzuekin aurkitzen da, eta horiek kontatzen dizkioten istorioak ikasbide sakona dute. Pertsonaia ez zait asko gustatu, egoera batzuetan erreakzionatzen duen moduagatik.



Ivan eta Julen

JARA BARTZELONAN

Idazlea: Jasone Osoro**Argitaletxea:** Zubia**Urtea:** 2007

Liburu laburra da. Gure iritziz, haren mamia oso interesgarria eta zehatza da. Euskara pixka bat dakien edozein pertsonak erraz irakur dezake, baina hitz zailak ere baditu, noski.

Jara pertsonaia arrunta da, bere adineko neskak bezala. Baina gure iritziz, lagunak egiteko duen erraztasunak ez du errealitatearekin bat egiten. Hori da liburuaren alde txarra. Beste guztia kontuan hartuta, liburu zoragarria dela iruditzen zaigu.



Ea zer egiteko gai garen

Iepa! Gu, Ibarrekolanda Institutuko 2. Batxilergoko ikasleak gara. Mikel biak eta Ibon Humanistikoko Batxilergokoak, Iñigo Artistiko Plastikokoa eta Iker Eszenikokoa.

Euskararen Egunean gure lehenengo kontzertua eman genuen institutu barruan. Kontzertua prestatzeko ezin izan genuen bateriarik ekarri, beraz gitarra akustikoekin eta lkerren kajoiarekin prestatu behar izan genuen, nahiz eta guk nahiago dugun jotzeko gitarra elektrikoekin eta bateriarekin egin. Bestetik, Ibonek bere baxua ekarri, eta zuzendaritzakoek beste mikrofono bat utzi ziguten, bat bakarrik baino ez baikeneukan eta Iñigok abesteko behar zuen.

Kontzertua baino lehen noizbehinka elkartzen ginen, baina inoiz ez genuen ezer prestaturik eta normalean inprobisazioak bakarrik egiten genituen. Hortik aurrera, ostiralero geratzen hasi gara nahiz eta nahiko zaila izaten den guztiok egitea, Iñigo eta Iker ez baitira Deustukoak.

Gure artean, beste hainbat taldetan bezala

gustu oso desberdinak ditugu, baina bostok saiatzen gara taldekoek egindako proposamenak onartzen eta momentuz nahiko ondo ulertzen dugu elkar.

Entseatzen denbora gutxi daramagunez eta oraindik ez dugunez ondo ezagutzen bakoitzaren jotzeko era, abesti nahiko errazak jotzen ditugu, bereziki punk-rock eta ska generokoak. Gainera, bostok oso maila estandarra dugu jotzerakoan, baina gure ustez musikaren arloan garrantzitsuena guztiok jardutea eta gozatzea da. Denbora pasatzen doan heinean, gure artean gehiago ezagutzen dugu elkar, eta guztiok guztion zuzenketak onartzen ditugu ahalik eta soinu onena lortzeko.

Bada, espero dugu hemendik aurrera entseuekin jarraitzea eta ahalik eta azkarren talde-egitura hartzea, ea zer egiteko gai garen.

A DOODLE 4 GOOGLE



Ingelesez *doodle*-ak dira pentsatu gabe egiten diren zirrimarrak; telefonoz hitz egiten ari garen bitartean, adibidez. 1998tik Googlek *doodle* hitza erabiltzen du bilatzailearen orrian agertzen diren ohiko logotipo-aldagarriak izendatzeko, hainbat ospakizun eta pertsonaia (zientzilariak, artistak eta aintzindariak) gogora ekartzeko asmoz.

2012. urtean Euskararen Egunaren ospakizunetara begira, Eusko Ikaskuntzak euskararen aldeko Internet kanpaina berezia jarri

zuen abian. Oraingoan euskal kultura eta zientzia elkarteak Google bilatzailea ipini zuten jomugan eta sinadurak bildu zituen Interneteko atari erraldoiari euskarari buruzko *doodle* bat egiteko eskatuz. Hona hemen Unamuno institutuan diseinatutako *doodle*-ak.

Bloga hornitzen eta hobetzen laguntzeko modua ere baduzu. Zure ideia eta proposamenak ondo onartuak izango dira. Horretarako hitz egin zure irakaslearekin eta lagundu gure bloga hazten!



Kurkuluxeta antzerki taldea la Sallen

Gehienok dakizuenez, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek antzerkigintza lantzen dute astean behin eskola-ordutegi barruan.

Izan ere, jarduera horren alde guztiak jorrazten dituzte, eta gustura egin ere. Honek, atsegina izateaz gain eta artearen diziplina eder horrenganako zaletasuna pizteaz gainera, makina bat gaitasun garatzen laguntzen die umei.

Antzerkia berez adierazpena da, batez ere, espresioa, eta horixe da, hain zuzen ere, ekintza honetan gehien garatzen duten gaitasuna: idatzizko adierazpena, ahozkoa, gorputz adierazpena...

Sarritan jendaurreko ahozko adierazpena kosta egiten zaigu helduoi, ziur asko umetan askorik lantzen ez den kontua delako. Umeei ere berdin gertatzen zaie, sarri askotan jendaurrean hitz egiten lotsatu egiten dira, hau da, kosta egiten zaie azaldu nahi dutena adieraztea. Horretarako antzerkia oso lagungarria da, beste batzuen aurrean agertzen eta hitz egiten jolasen bidez ikasten dutelako.

Antzerkian beste baten azalean sartzen gara, beste baten papera egiten dugu, eta era horretan errazagoa da jendeari hitz egitea. Gainera, ikasitako paperak izaten dira eta umeak seguru sentitzen dira jendartean. Baina aldi berean jendaurrean hitz egiteari lotsa galtzen hasteko lehenengo pausoak dira, ahozko adierazpena hobetzeko oso bide egokia.


Bestalde, umeentzako jolasa da, ondo pasatzeko zerbait. Baina ikuspuntu pedagogikotik ere badauka bere ekarpenik, etorkizunean ezinbestekoak izango dituzten erremintak jasotzen laguntzen dielako. Esaterako, ahozko adierazpenarekin batera, gorputzarena ere ikasten da. Garrantzitsua da ahozko adierazpena gorputzaren mugimendu egokiek bateratzea, eta antzerkiak horretarako tresnak ere eskaintzen ditu.

Gaur egun asko hitz egiten da komunikazioaz, komunikazioaren garaiak eta ondo komunikatzearen garrantziak. Antzerkiak ekarpen garrantzitsua egiten du alde horretatik, oso baliagarria da komunikazioan trebatzeko.

Beraz, adierazpena edo komunikazioa lantzeari dagokionez, antzerkia interesgarria da. Horretaz gainera, artearen diziplina horrekiko zaletasuna sorrarazten du eta, zergatik ez, etorkizuneko taula gaineko izarren bat ere atera daiteke La Salletik!



Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?



Dei iezaldugu? Nork-Nori-Zer???



Arriskugarria, arriskutsua baino gehiago ote?



Egiazko ogia, ez gezurretakoa!

Hizkiak batetik bestera mugimenduan!
Ertzaintza = Erizaintza



Kontuz errotonda eta oso borobila!

Kultur ekitaldiak

ESNE BELTZA

'GORA' diskoaren aurkezpen kontzertua

Noiz: apirilaren 11n, 22:00etan

Non: Bilboko Kafe Antzokian

EMAKUMEA ETA EUSKAL PILOTA ERAKUSKETA

Noiz: apirilaren 20ra arte

Non: Euskal Herriko Museoan

HARRAPAZANK - KASTINA

Noiz: martxoaren 29an, 11.00 - 14.00

Non: Bilborock Aretoan

BADU BADA ERAKUSKETA

Hizkuntzen arteko elkarbizitzari buruzko eztabaida eta hausnarketarako gunea

Noiz: maiatzaren 5era arte

Non: Bilboko Alondegian

Antzerkia: ZAZPI ALDIZ ELUR

Noiz: martxoaren 14an, 20:30ean

Non: Basauriko Sozial Antzokia

EUSKAL HERRIA BILBON KANTARI

Bilboko kaleetan kantuzaleak kantari

Noiz: martxoaren 22an, 12:00 - 20:00

Non: Zazpikaletan zehar, Jardines de Albiatik abiatuta

Antzerkia: HAMLET

Noiz: martxoaren 14an

Non: Arrigorriagako Antzokian



Fig. 89. Cuadro de señoritas futbolistas que inauguró el Habana-Madrid en 1922. De pie: Grecia, Euharria, Mercedes, Angleri, Urriola, Antonia, Encarna y Lolita; Sentadas: Timoteo, Etxea, Pepina, Eñua, Encarnita, Comandis, Angélica, Antoloba y Matilde. (Tomada de *El Libro de Cuba*).



AHO-KORAPILOA

Zenbaki bakoitzari dagokion hizkia bilatu eta berehala aurkituko duzu gaurko aho-korapiloa.

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
			26							20							18			1					

K	R	R	K	D	R	R	K	K	R	R	K	D	U											
6	20	13	18	18	6	20	6	26	6	18	18	6	20	16	20	13	18	18	6	20	26	24	21	1
K	R	R	K	D	R	R	K	K	R	R	K	D	U											
16	20	13	18	18	6	20	6	26	6	18	18	6	20	6	20	13	18	18	6	20	26	24	21	1

LETRA-ZOPA

Gustuko dituzu hegaztiak?

Bilatu letra-zopa honetan hegaztien izenak.

A B Q A O S U R K G N J P Z A
 H Y M E R N M A W U M E A O T
 A E Z T K R I I X X R K M Z N
 T M V X L O A T K I F W U O C
 E G Y O M F R N K A K N A C W
 J A N L R E B I O K I L P B F
 F A Q A L I T O N A K I L E P
 J L P R K O N L Y C S G C I D
 L X X R O U I D E N S I Z R V
 Z F G E E I T A I W L B M B Y
 T X A N T X A N G O R R I A
 G N A E F O D P W A I T Y L E
 Q R L I X K S C V C P L L O P
 A E O U C P W B V F U A A K A
 B Y C U I A N T Z A R A P R L

AHATE - ANTZARA - ARRANO - BELE -
 ENARA - INDIOILAR - KAIO - KOLIBRI -
 LERTXUN - MIKA - OKIL- PAPAGAI -
 PELIKANO - PERIKITO - TUKAN - USO -
 TXANTXANGORRI - TXOLARRE - ZISNE -
 ZOZO - PAUMA


GURUTZEGRAMA Asma itzazu!

Zeharretara

1. Ezer egiten ez duen pertsona
5. Biolina jotzen duena
7. Kale luzea

Goitik behera

2. Euskararengatik interes handia erakusten duena
3. Liburu mota
4. Bi pertsona ia berdinak direnean
6. Diru mordoa



La Salle
 Andrea Perez, Bea Lekue,
 Rebeca Montes eta Sofia Martin

Deustu herria

Deustu Bizkaiko herri bat da, Bilbo ondoan dagoena. Ibarrekolanda auzoa eta Bilbo artean dago, bere goialdean Arangoiti aurkitzen da. Itsasadarra du alboan, pasealeku eder batez hornituta.

Auzoaren goialdean frontoia daukagu, Done Petri enparantzian. Gure herria zerbitzuz beteta eta oso ondo komunikatuta dago; metroa, bus geltokiak... gure herri ederrera munduko txoko guztietatik jendea etorri ahal izateko. Oso famatuak direnez, Botika Zahar BHLra eta Deustuko Unibertsitatera jende asko etortzen da. Beraz, Deustu hainbat tokitako ikaslez betetako bazter ederra da.

Gure Deustuko kalerik esanguratsuenak Iruña eta Agirre Lehendakariaren etorbidea dira,

bertan metroa eta komertzio gehienak kokaturik daudelako. Luzarra kaleko tabernetan gazteak elkartzen dira tragu batzuk hartzeko. Ondoan, Gazte Lokala edo gaztetxea dago eta Ramon y Cajal kalean, Herriko Taberna. Gazteen lonjak ere aipatzeko modukoak dira, zonalde beretik hainbat lokal aurki ditzakegulako. 40 urtetik gorako jendea La zona-ra doa poteatzera, tabernaz beteriko plaza bat dena.

Deustun, bost eskola daude: Deustuko Ikastola, Deustuko Eskola Publikoa, La Salle, Ibai-

gane eta Salesianos. Gainera, futbol talde bat ere badugu, SD Deusto izenekoa, gure artean oso ezaguna, nahiz eta emakumeen taldea duela urte batzuetatik faltan botatzen dugun. Gure arrauk taldea ere Bizkaia mailan oso garrantzitsua da, batez ere Bilboko Udalak erostea erabaki zuenetik... Deustuko Ikastola parean kiroldegia dago, eta erreka ondoan, aipatzeko moduko parke bat, arratsaldero umez eta hauen gurasoz betetzen dena.

Baina bada batez ere gure herri kuttuna kezkatzen duen kontu bat, gure nahietatik kanpo egon arren: Azkunak Deustuko Erriberan egin nahi duen irla.

Deustu herri txikia denez, guztiok elkar ezagutzen dugu. Oso giro ona dago gure kaleetan zehar, beraz, animatu zaitez Deustu bisitatzera, zure zain gaude eta!



**DEUSTU
EZ DA
BILBO!**



Lana eta aisia uztartuz: gure azken ekintzak

Pertsonei Arretako 2. mailako taldekideok azken denboraldian burutu ditugun zenbait ekintzaren berri eman nahi dizuegu artikulu honetan.

Dakizuenez, abenduaren 3an Euskararen eta Ezgaituen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Eskurtze institutuan biak bat egiten saiatu ginen.

Eguna kalejirarekin hasi genuen trikitilarien eskutik; hamaiketako batekin jarraitu genuen eta euskal dantzak eta herri kirolak izan genituen gero.

Baina egunaren bi ospakizunak batzeko zubitza Zea Mays taldearen *Negua joan da ta* kanta antzetzuz borobildu genuen, zeinu hizkuntzaren bidez.

Gure ikasketak ezin ahaztu, ordea! Pertsonei Arreta ikasten dugunok oso lotuta gaude nagusien munduarekin, besteak beste, eta bide horretan ere gure ekarpena egiten saiatzen gara.

Horrela, Txurdinaga Barri eta Gurena egoitzak bisitatu genituen abenduan, eta Gurena egoitzako iragarki batean irakurri genuen erabiltzaileen aisialdirako ikuskizunak, antzerkia, kankak... eta abar nahi zituztela bere egoitzan emateko. Horrela, animatu egin ginen *Negua joan da ta* kanta zeinu hizkuntzaren bidez interpretatzeko neguko oporrak hartu aurretik. Bizipen interesgarria eta ederra izan genuen. Espero dugu gure ikusleek ere atsegin hartzea ikuskizunarekin.

Bestalde, gure ikasketak eta etorkizun profesionala aisialdiarekin ere lotuta dago. Beraz, Guggenheim Museoan ere izan ginen aurreko hiru hilekoan. Museoak eskaintzen duena ikusteaz gain, Tapies, Serra... gure gaurko jakintzarako eta etorkizuneko lan-mundurako baliagarria izan daitekeen ekarpena jaso genuen.





Animazio Soziokulturala eta Turistikoa

Goi Mailako Ziklo hau aukeratu genuen beste ehunen artean, eta zuen galdera, “zergatik” izango da, ezta? Hurrengo lerroetan azalpen txiki bat emango dizuegu.

Umeak, nerabeak, helduak, hirugarren adinoko jendea, arazo sozialak dituen jendea, etorkinak... laguntzeko bildu gara hemen. Haien denbora librea atsegina egiteko, eta hoteletan hawaiar dantzak egiteko:)

Bi klasetan gaude banatuta, lehenengo eta bigarren maila, gutxi gorabehera hogei pertsonakoa bakoitza. Talde lanean jarduten dugu sarri, hainbat eratako talde dinamikak eginez. Hemen agertzen den argazkia Gabonetako Jaiaren ospakizuneko zati bat da, guztiok batera egindako lanaren ondoren sortutako jai, gure gogo eta ahalegin guztiekin!

Modulu desberdinak ditugu Ziklo honetan, adibidez Tailerra (antzerkia eta dantza egiten dugu ostiraletan), Ingelesa, gizarte eta kulturarekin zerikusia duen teoria eta praktika...!

Etorkizunari begira, leku askotan ikusten dugu geure burua, batzuk hemen eta besteak han, guztiak ikaragarriak. Gaixotasunen bat duten pertsonekin musikoterapia bultzatuz, ume eta ez hain umeekin txotxongiloak egiten, adineko pertsonekin iphone “pro”-entzako fundak eginez...

Anima zaitetz! Erakutsiko dizugu...:)

Laura (Kaiku) eta Naiara (Deustu) Institutuan lagun itsasoan arerio

Botikazar BHI



Laura eta Naiara Botikazar institutuko ikasleak ditugu, Laura 2. Batxilergoan dago eta Naiara 1.an. Biek, ikasteaz gain, hainbat ordu eman behar dituzte astero entrenoa.

Zenbat urtekin hasi zineten arraunean?

Laura: Hamabi urtekin ergometroko lehiaketera joaten hasi nintzen. Duela hiru urte Londreseko talde batean egon nintzen udan, eta azkenean, iaz Deustuko Taldera sartzea erabaki nuen, eta aurten Kaikun nabil.

Naiara: Hamabi urtekin hasi nintzen, zeren eta tenisa egin nahi nuen baina ez zegoenez plaza liberrik beste kirol batekin frogatu nahi izan nuen eta lagun bat neukanez arraunean zebilena berarekin apuntatzea erabaki nuen.

Nola moldatzen zarete kirola eta ikasketak ondo eramateko ?

Laura: Egia esateko zaila egiten zait, zeren eta arraunean ordu asko eman behar ditut eta denbora gutxi geratzen zait ikasteko. Baina, esfortzu gehiago egiten badut ondo molda naitekeela uste dut, eta ikasketak ondo atera kirola utzi gabe.

Naiara: Egia esateko pixka bat zaila da baina ondo antolatuta bi gauzak ondo egin ditzakezu, plangintza onarekin. Kurtsoa ondo daramat, aurten ordu asko ematen ditut entrenatzen baina antolaketa hobea ere badaukat.

Zenbat ordu ematen dituzue arraunean ?

Laura: Sei egunetan astean entrenatzen dut, baina ez daukat ordu finkorik, zeren eta egunero entrenamendu desberdinak egiten ditut. Beti dakigu entrenamenduaren hasiera, baina inoiz ez amaiera.

Naiara: Astero bost egunetan entrenatzen dut, baina nik ere ez daukat ordu finkorik, egunaren arabera entrenamendua desberdina izaten baita.

Momentu honetan zein taldetan zabilzate? Harreman ona duzue aurkariekin?

Laura: Kaiku taldean nago. Ondo eramaten naiz haiekin, baina lehiaketa orduan aurkari bezala ikusten ditut lagunak izan arren.

Naiara: Deustu Arraun Taldean nago. Oso ondo eramaten naiz nire aurkariekin zeren eta nire ustez, lagunak edonon izan behar dituzu, baina gero lehiaketaren orduan nire etsaiak dira, baina horrek ez du kentzen nire lagunak izatea.

Arraunlarien munduan nolakoak dira li-geak?

Laura eta Naiara: talde berekoen artean bai, neska eta mutilak, nagusi eta gazteen artean, harreman handia dago ordu asko ematen baititugu elkarrekin entrenamenduetan eta egia esanda oso-oso harreman ona daukagu gure artean.



Alazne Carrillo eta Unai Foruria

Inauteriak dira
 Deustuko taupada
 gure hizkera zaindu
 ez kendu maskara
 guztiekin erabil
 ezazu euskara
 mozorroa jantzita
 atera plazara

Gizonak baditugu
 irudi eta logo
 berdinak izateko
 ditut hainbat gogo
 hori hemen lortzeko
 hamaika metodo
 errespeta itzazu
 emakume oro

Kastin irekiak

HARRAPAZANK JUNIOR 9-13 urte
HARRAPAZANK SENIOR 14-18 urte

harrapazank.com  

HARRAPAZANK ESZENA



SORTUZANK TAILERRAK



ARGAZKILARITZA • TXALAPARTA • DJ • GRAFFITI • CUPCAKE • BITXIAK

OTSAILAK

18 - 19 - 20

21

24

25

26

27


Bilbao
SOZIALA
AYUNTAMIENTO


euskaltzaleen
topagunea